

PuLunPe

147. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

Oinutsik jin gara, zolarik gabe
eta ez dugu sentitu ez arantza, ez harri, ez
arrabioen eztenik.

Inongo poliziak ez gaitu zanpatuko
dagoeneko zaurituta baikatoz.

Zuen zerbitzariak izango gara, erditzen ez
dituzuen umeak,

gure bizitzak izanen dira zuen abentura
liburuak.

Homero eta Dante dakartzagu, itsua eta
erromesa, galdu duzuen usaina, zapaldu
duzuen berdintasuna“.



LETRA: ERRI DI LUCA, "SOLO ANDATA" OLERKITIK HARTUA. ARGAZKIA: IRANTZUN PASTOR

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA. 2015EKO ABENDUAREN 3AN INPRI-
MATEGIRA BIDADIA.

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu,
Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab...
Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

AZALA: Izaskun Altuna

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.

Ti- rada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U



Hamabost galdera nori?



AMAIA ELIZONDO MELERO, LIZASOARRA. CAM-
BRIDGEN EGON DA AZKENALDIAN, ETA BERTATIK
ERANTZUN DIGU GURE GALDERA AUSARTEI.

1. AUKERATU: CAMBRIDGE EDO LIZASO? Mesedez,
zalantzarik gabe, ELE-I-ZETA-A-ESE-O! mote-
lentzat... LIZASO!
2. LIZASO KENDUTA, ZONALDEKO BESTARIK ONE-
NAK? Zonaldeko bestarik onena Lizaso kenduta??
Aurreko galdera erraza zen... baina hau... Lizaso
ezin bada izan... galdera honek ez du zentzurik
jajaja
3. ZONALDEKO MUTIL ETA NESKARIK GUAPOENAK
NON? Baina baina baina.... ze galdera mota da
hau? Lizason noski, bistan dago!!
4. INAUTERIETAKO MOZORRO HOBERENA? Nik beti
azkeneko momentuan prestatzen dut... eta buru-
ratzen zaidana... Baina hori bai dantzatzeko ero-
so izan behar du... You know... "NO DANCE, NO
PARTY!"
5. PATXARANA, ANISA EDO BELAR LIKOREA? Ea ba,
ez bata ez bestea... Jakin nahi baduzue... hona
hemen asmakizuna: edariaren izenaren azkeneko
lau letrak erdaraz zortzi.
6. LIZASON EZ BALITZ NON BIZIKO ZINATEKE? NO-
REKIN? Lizasorekin maiteminduta nago, baina
ezagutzen nautenek badakite lruñean ere oso
ongi bizi naizela. Etxean eta etxekeekin inon be-
zala!

7. EUSKAL DANTZAK ALA ZUMBA? Nahiz eta dea-
brua giltzurrunetan eraman... euskal dantzak eus-
kal dantzak dira eta horrekin dena esan/errana
dago.
8. EZKUTUAN DAUKAZUN SEKRETU BAT? Sekretua
bada, sekretu izaten jarraituko du.
9. BIZITZAN EGIN BEHARREKO GAUZA BAT? Kubara
joan, eta espero dut laster izatea," *ya tu zabe he-
mano... la vida e kota y hay que difutala!!*"
10. LIZASON GERTATUTAKO TXUTXU-MUTXU GA-
RRANTZITSUENA? Uffff txutxu-mutxuak =kutsadu-
ra... Hobe ez hitz egitea.
11. NORA JOAN ZARA URRUTIEN PARRANDA EGITE-
RA? parranda egin dudan lekurik urrutiena Min-
nesota izan da, baina benetako parranda egin
nahi baduzu ezin duzu oso urruti joan, Euskal He-
rrian bezala... inon!
12. KONKISTARAKO ZURE ESTRATEGIA? Estrategia-
rik ez izatea.
13. ETA ZU KONKISTATZEKO ESTRATEGIA ZEIN IZAN
BEHAR DA? Interesatua zaude edo? Jajajaja Ba...
auskalo, arraro xamarra naiz horretarako jajaja
14. ERLIJO BAT AUKERATZEKOTAN ZEIN? ZERGA-
TIK? Nirea, zergatik? Ba... Nire erlijioak diolako
horrelako galderari horrelako erantzuna eman be-
har diodala.... What?????
15. PULUNPEKO KAZETARIEI ZER ESANGO ZENIE-
KE AURREAN IZANGO BAZENITU? Ziur zaudete Li-
zasokoak ez zaretela? Oso guapoak zarete eta!

ABENDUko AGENDA

ERAKUSKETA

Azaroaren 30etik urtarrilaren 7ra
ARGAZKIEKIN JOLASEAN
Argazkiekin jolasean jarriko gaitu
ANDONIX ART-ek.
Argazkiak arlo artistiko batera eramana-
go ditu, aldaketa desberdinekin argazkia
edo marrazkiak diren pentsaraziko digu.

ABENDUAREN 4an LARRAINTZARren
FILMEA

“RELATOS SALVAJES”

Berdintasun ezak, bidegabekeriak eta
bizi dugun munduaren exigentziak estresa
edo depresioa eragiten diote jende asko-
ri. Batzuk lehertu egiten dira. Pertsona
horiei buruzko pelikula da hau. Relatos
salvajes filmeko protagonistek bat-batean
aldatu eta aurretik jakin ezin den erreali-
tate baten aurrean ahulak izanik, kontrola
galtzearen plazer ukaezinaren aurrean
amore emango dute.

ABENDUAREN 11N
19:30ean LANTZ

KONTZERTUA PETTI

Bakarlaria da Petti (Bera, Nafarroa,
1973) eta amerikar sustraiak dituen rocka
egiten du. Pettiren ezaugarri nagusiak,
erraietatik ateratzen den ahots urratu eta
sakona, bluesaren arimaz kutsaturiko
kantu ezkor eta ilunak, gitarra jotzeko
trebezia eta taula gaineko indar basatia
dira.

Abesbatzaren EMANALDIA
IRAIZOTZ
ABENDUAREN 18AN 20:00etan.

ABENDUAREN 18AN 18:00etan
LARRAINTZAR

Antzerkia: Genero ereduak apurtuz

Larraitzarko eskolako 6. eta Basabu-
ruko eskolako 5. mailako ikasleen an-
tezlana. Gai hauek aztertzen dituzte:
emakumeen eta gizonen rola, etxeko
lanen banaketa, errespetua eta autoesti-
mia, tratua onak, eta hizkuntza ez sexis-
taren erabilera.
Hau da emaitza.

ABENDUAREN 22AN
LARRAINTZARKO
ESKOLAN

GABONETAKO
KANTALDIA



EUSKARAK
365
EGUN

erabizi



www.365egun.eus

KAIXO, PASA DEN HILABE-
TEAN ARGITURATUTAKO ODIE-
TAKO EUSKARAREN BATZORDERI
BURUZKO EREPORTAJEAN, HUTS BAT EGON
ZEN. BATZORDE HORRETAN LAU KIDE GAU-
DE, HIRU AGERTU GINEN, BAINA GURI, TAL-
DE BEZALA, KOHESIOA EMATEN DIGUNA EZ
ZEN AGERTU!!! GURUTZE SANTXO, ESKE-
RRIK ASKO!

Nire oinetakoek
epin duten bidea
ez dugu epin eta,
Zuk ez dakizu
deus ere nire bizitzaz.
Hortaz,
gorde erazu uonbait
mingain zikin hori.
Mesedez,
ez lokartu
zure lerde zikinaz
ibil bidea,
eta ere,
nire horizontea lausotu.
Akordeak ulertzen
ez ditazunez, ez erazu
nire gitarra puskatu.
Hartara,
axola ez bazaitu...
zoz pikutara!!!
Jose Labier Etxalde



Herria kudeatzea, ohorea ala zama?

Asko aldatu dira kontuak politikan. Halako punturaino, orain guztiari politika deitzen diogula. Herria kudeatzeari ere politika deitzen zaio, eta batetik bestera igaro garen honetan, herrietan ez dago gogorik ez bata eta ez bestea egiteko.



Goazen harira, zer esan nahi dut honekin? Kontua da maiatzaren 25eko foru, udal eta kontzeju hauteskundeetan, herri askotan ez zela zerrendarik aurkeztu, eta alkaterik gabe geratzeko arriskua dago. Bi udaletan, gainera, arazo bera dago: Anue eta Lantzen. Aurretik ere gertatzen ziren halakoak, baina ho-

bera joan orde, ematen du okerrera doala; jende gutxiago dago herria kudeatzeko prest. Garai aldaketa, konpromiso falta, elkartasun falta, bizimodu aldaketa eta abar aipatu dira arrazoi gisa.

Hori zehaztu nahi izan dugu guk, zergatik ez dago jendea alkate izateko prest?

Maiatzaren 25ean zerrendarik aurkeztu ez zuten kontzeju eta udalak:

LANZKO UDALA

ANUE: Anueko udala, Aritzu, Etulain eta Olague.

BASABURUAN: Beruete eta Udabe-Beramendi.

IMOTZEN: Goldaratz.

ODIETAN: Ziaurritz, Gelbentzu, Gendulain eta Latasa.

ULTZAMAN: Alkotz, Arraitz-Orkin, Auza, Eltzaburu, Gorrontz-Olano, Iraizotz, Urritzola eta Zenotz.

Orain, abenduaren 20an bigarren aukera izanen dute zerrenda aukeratzeko. Herri batzuetan ezo-hiko neurriak hartu behar izan dituzte alkate bat izateko, besteetan ez dute lortu. Sakon hitz egin dugu Lanzko eta Anueko alkateekin, eta baita Lanzko alkatetzara aurkeztuko denarekin:

Raul Pascal Egozkue, Anueko alkatea



harra dago.

Hala ere, gauza ona ere izanen ditu ezta?

Hemen gure herriaren alde ari gara lanean, eta poz handiak ematen ditu lan honek. Baina 8 urte eman ditut nik, eta aski da. Nire arkitektura lanarekin bateraezina da orain.

Zure taldekoek ez dute jarraitu nahi?

Batzuek bai, baina zinegotzi gisa, baina ez alkate gisa.

Eta beste inork ez du aurkeztu nahi?

Ni harritzen nau inor ez egotea prest aurkezteko. Anue ez da txikia, zerrendarik gabe geratu den udalik handiena da Nafarroan. Horrelako biztanleriarekin, normalean, bi talde aurkezten dira, baina hemen lehenengo aldia da gainera hau gertatzen dela.

Nolabaiteko pasotismoa dagoela esango nuke, ez dago interesik udal gaietan, plenoetan... jendeari zuzenean eragiten dioten gaietan bai interesa pizten da, haren kontra badoaz. Bestela paso egiten dute.

Zer gertatuko da hemendik aurrera?

Herri hautaketa bat egingen da ziurrenik. Zentsoa hartu, eta zazpi izen aukeratu beharko dira. Ateratzen diren horiek izanen dira zinegotzi. Lantzen egin dutenaren antzera, baina bertan lehena go egin dute. Hemen gestora bat aterako da, ez kandidatura bat. Botere mugatuak ditu, minimoak erabakitzeko eskumena izanen du, ez gehiengo absolutua behar duten erabakiak hartzeko eskumenik.

Gazteei paso egitea egotzi zaie askotan, hala al da hemen?

Ez dut uste. Egia da zahar asko hemendik pasa-

tu direla jada, bete egin dutela egin beharrekoa, baina hala ere ez nioke adinari egotziko egoera hau. Orain gaudenetatik inor ez da 40 urtetatik pasatzen. Egia da belaunaldi berriek ez dutela erreleboa ematen, baina zinegotzi gazteak ditugu, adinak ez du hemen zerikusirik.

Zer da orduan?

Kontua dedikazioa da, eta bakoitza bere interesetara doala. Askok diote ez dutela astirik, baina ikusten dituzu gimnasiora, inglesera... doazela. Kontua da lehenetasunen artean udala ez dagoela lehenengo postuetan, ez zaio lehenetasunik ematen.



David Mariñelarena, alkatea eta Isabel Baleztena, hautagaia

Zer gertatu da Lantzen?

Herrian batzarra egin genuen, eta abisatu genuen orain gauden 5etatik, 3 ez ginela berriz aurkeztuko. Beste biak, emakumeak, prest zeuden jarraitzeko, eta hainbat pertsonarekin hitz egin zuten zerrenda bat aurkezteko, baina ez zen interesik agertu.

Nik ikusten dut jendearen konpromiso falta dagoela, eta ez bestelako ezer. Hemen beti independente gisa aurkeztu gara, herria kudeatzea etxea kudeatzen dugun bezala. 8 urte daramatzagu kandidatura honekin. Jendea ez da konturatzen zenbateko lana egiten den.

Eta zergatik gertatu da aldaketa hau?

Nire ustez, herriak izugarri aldatu dira, eta bizilagun eta elkarri laguntzeko sentimendu hori ez da lehen zena. Logela-herriak dira hauek, asko aldatu da bizi eredia, eta horregatik uste dut dagoela egoera hau.

Nola egin duzue azkenean?

Bilera egin zen, eta bizilagunen artean erabaki genuen bozketa bat egitea, eta boto gehien ateratzen zuten 5ak aurkeztuko zirela. Bagenekien baten batek ez zuela onartuko, eta kasu batzuetan hala gertatu da, baina lortu dugu 5 pertsona aurkezte eta kandidatura ateratzea. Ordenaren arabera: Isabel Baleztena, Jon Ziga, Mikel Mariezkurrena, Oskar Ziganda eta Luis Mariñelarena.

Zu izango zara alkate?

Momentuz taldea atera da, eta bada zerbait, dezente kostatu baitzaigu. Gero hitz egingo dugu gure artean.

Erabakia ongi onartua izan da?

Beti egon da beste zerrenda bat aurkeztu ahal izatearen aukera hori. Kandidatura bat ateratzen saiatu ginen, baina ez zen atera. Orduan, hau azken saiakera izan da, eta hau ez bazen, beste formularen bat erabaki beharra zegoen, eta hau izan da onartu dena.

Boto gehien jaso dituzuenak aurkeztu beharko ezta?

Bai, batzuek konpromiso hori hartu genuen. Lehen gainera ezin zen ezetz esan, konpromisoa hartua zegoen ezer esan beharrik gabe, izendatua ateratzen zenak onartu behar zuen. Dena den, parte hartze altuak harritu nau, pozik nago alde horretatik.

Konpromiso puntu bat behintzat aurkeztu du jendeak ezta?

Maiatzean utzi egin zen pasatzen, pentsatzen jendeak konpromisoa hartuko zuela autonomia galtzeko beldurrez. Orduan utzi genuen jendeak iniziatiba hartzen. Orain, ikusita inork ez zuela hartzen, proposamen hau egin dugu, ezin baitzen gehiago utzi kontua. Zortea dugu autonomia izateaz, eta orain konturatzen gara oso ona dela hori. Herriko jendea horretaz bai konturatzen da, eta esfortzua egiten du, autonomia hori gordetzeko behintzat.

Mende erdia, **izen** berria eta **eraikin** berria!

Badirudi aurtengoa efemeride historikoen urtea izango dela Larraintzargo eskolarako. Alde batetik 50 urte beteko ditu eraiki zenetik, Irurita Gotzaia izena izatetik beste bat izatera pasako da, eta bestetik eraikin berria egingo dela diote hurrengo Nafarroako aurrekontuek. Eskolaren mende erdiaren ekimenak antolatzen dituzten bitartean ezagutu dira bi albiste garrantzitsu, ikus ditzagun.



Ultzamakoak, Parlamentuan

Eraikin berria

Duela 20 urte jarri zituzten behin-behineko modulua eskolan. Hortik aurrera, hotza, itoginak eta argindar eteteak bertan ikasten duten ia 300 ikasleen egunerokotasunean txertatuak egon dira. 20 urte luze hauetan Gobernuari eginiko kexak asko izan dira, baina orain arte konponketarik ez. Aldaketa politikoarekin batera etorri da, kasualitatea ote?

Konponketak lortzeko borroka luzea izan da. Azken bi urteetan arindu dira mugimenduak. Iaz Hezkuntza Departamentuarekin bilerak egin ziren eta aurren, martxoan, parlamentarien bisita baten ondoren Gobernuari eskatu zieten behingoz konponketak egiteko. Apymatik esaten dutenez, “gauza guztietatik ikasten denez”, erabaki zuten haien lana handitu behar zutela.

Aurtengo azaroaren 4an Hezkuntza Departamentuaren izenean Eneko Ardaiz azpiegituren zuzendariak eta José Ramón Losantos departamentuko teknikariak eskolara bisita egin zuten. Azaroaren 11n, Ultzamako Udalearen eta eskolaren ordezkariak Parlamentuan egon ziren arazoari buruz hitz egiteko eta egun gutxi geroago, sorpresa, egunkarien bitartez jabetu ginen 2016. urteko aurrekontuetan konponketak zetoze! Aurrekontu hauetan diru partida handi bat dago zenbait eskola konpontzeko, horien artean Ultzamakoa.



Irurita Gotzaia

Hori da momentuz dakiguna. Abenduan berriro itzuliko direla jakin izan dugu.

Izen berria, baina zein?

Eskolan erabakiko dute hemendik gutxira. Ultzamako iraileko osoko bilkuran erabaki zuten eskolaren izena aldatzea, “Larraintzarko ikastetxea” proposatuz.

Agrupación Ultzamakoek erabaki horren kontra agertu ziren, hedabideetan esanez “bertako baten memoria oroitzeko jarri zela izen hori, apezpikua izateak ez zuela zerikusirik eta hezkuntzarekin zerikusia” zuela. Historia ofizialaren arabera, abenduaren 3an hil zuten Irurita Bartzelonako apezpikua zelarik, duela 80 urte. Ez dakienarentzat aipatzea bizirik ote zegoen zurrumurrua ez dela inoiz argitu.

Eskola kontseiluak udan eskatu zuen eskolaren izena aldatzea eta irailean Udalak onartu. Izen berria laster jakingo da.

Ultzanueta martxan dago



Ultzama, Anue eta Odieta elkartzen dituen ur mankomunitatea funtzionatzen hasi da. Proiektua ez zen berria, 11 urte daramatza, baina urriaren lehenengoa izan da martxan hasteko eguna.

Kontzejuek zeukaten lehen ura kudeatzeko eskumena, baina Europak ur kalitate minimoa eskatu zuenetik, ezinbestekoa ikusten zen honelako proiektu bat abiaraztea, edateko ur bihurtzeko. 1992ko foru lege batek, gainera, udalek konpetentzia berriak hartu behar zituztela

zioen, tartean oraindik ere kontzejuei zegokien uraren konpetentzia.

Arraitz inguruan hiru biltegi eraiki dituzte. Lehen, Lantzik datorren ura dekantatu eta tratatzeko. Bigarrena, herri guztiak hornitzeko biltegi handi bat, eta hirugarrena ponpatze planta bat, inguruko iturburuetako ura jasotzen duena; Ataketa, Ezpeleta eta Biurrungoa. Hirugarren honetatik goiko biltegiara ponpatzen da ura, Lantzik ur kantitatea txikiegia denean.

Ez dira hiru bailaretako herri guztiak sartu mankomunitatean. Batzuek nahi ez zutelako, eta besteek azpiegitura nahiko ez dutelako. Hurrengo urteetan hodi-sare sistema berritzea espero da, mankomunitatetik ura jaso ezin duten herriak, hemendik gutxira jaso ahal izateko.

Martin Pikabea da Ultzanueta ur mankomunitatearen lehendakaria. Hasierako gatazkak aparte utzita, pozik da mankomunitateak hartutako martxarekin.

Amaiur txapelketa irabazi dute Errugbikoek



Urria hasieratik azarora bitartean “La Única” errugbi taldeko neskek partidak jokatu dituzte eta denak irabazi; horrela, lehenengo aldiz antolatu den Amaiur txapelketan garaile suertatu dira. Besteak beste, Durango, Getxo eta Eibarko taldeen kontra aritu dira, eta aipatzekoa da Durangokoak 36 eta 0 garaitu zituztela azken partidaren. Arazurin jokatu zen azaroaren 8an eguraldi eguzkitsu batekin, eta Uxuen Barkos presidentearen bisita izan zen eguneko bitxikeria. Barkosek nafar kirolari “babesa” eskaini zion modu horretan. Gogoratu beharra dago talde horretan gure eskualdeko neska koadrila ederrak jokatu duela. Aupa zuek!

Gorka Etxeberria epaitzen ari dira



Aizarozko bizilagunaren aurkako epaiketa abenduaren 3an hasi zen Madrilen. Beste 34 kidearekin batera epaitzen ari da Entzutegi Nazionala, 04/08 sumarioko epaiketan.

2007an Seguran izandako sarekada du oinarri epaiketak, Batasuna, EHAK eta ANVko kide izatea egotzita atxilotu zituzten, eta orain epaituko dituzte 35 kideak. Urte hasieran egitekoa zen epaiketa, baina defentsarako abokatuak atxilotu zituztela eta, abenduaren 3an hasi da azkenean.

“Beste epaiketa politiko bat” dela salatzen dute auziperatuek. Aizarotzen, Gorka Etxeberriarekin elkartasunez hainbat ekimen egin dituzte azken urteotan, atxilotua izan zenetik orain epaitua izango den arte. Jarraipen berezia egingo diogu epaiketari, gure bizilagunarekin zer gertatuko den jakiteko.

Pestak eta inaugurazioa Muskitzen



Bi urte luze eman dituzte Muskitzen Itxasonean lanean herrikoen beharretara egokitzeko. Azaro erdialdean pestak antolatzen dituztenez, aukera ona izan da dena batera aurkezteko. Aurreko hilaren 13tik 15era programazio ederra antolatu zuten guztien gozamenerako.

Ohikoa den bezala, jana, edaria eta musika asteburuaren protagonista izan ziren.

Hale-re, ez da urtero estreinatzen elkarte berria eta lan luzeen ondoren elkarte, sukaldea, udaletxeko gela eta bilategia dute beheko solairuan. Halako etxerretan gertatu ohi den bezala, lekua soberan dago, beraz 3 etxebizitza egin dituzte bigarren solairuan.

Oraindik bukatu gabe badaude ere, urtarrilerako alokairuan jarri nahi dituzte. Bal-

dintzak aldizkariaren hurrengo zenbakietan argituko ditugu.

Eraikinaren ganbara hutsik dago momentuz, hori bai, udaletik argitu digute proiektu interesgarriak proposatuz gero zerbait egin daitekeela bertan edota, alokairuan sartzeko denboratik proiekturen bat balu, zerbait egin liteke bertan.

Programazioa
Ostiralean hasi ziren

jaiak eta inaugurazioa alkatearen hitz batzuekin. Afari ederra hartu zuten gero Apeztegi-berriko neskei esker. Gaueko parranda eta musika "Anitaren bilobak" Xulapaingo bikotearen eskutik joan zen. Goizeko 6etan eman zioten bukaera lehenengo eguneko parrandari.

Larunbateko programazioa luzea eta interesgarria zen: Atezko dantza taldea, bazkaria, adin guztietako jendearendako bingoa, afari herrikoa (sukaldea estreinatu zuten) eta bukatzeko gazteek musika saio bat egin zuten.

Igandean lasaiago egon ziren eta etxeko errondaren ondoren txapela jaurtiketa txapelketa egin zuten eta umeendako jolasak, horien artean, aspaldi entzuten ez genuen bizikleta ibilbidea.

Euskal Herriko behirik hoberena Lanzkoa!



Ez dugu harguk bakarrik esaten, Euskal Herriko Frisoi Txapelketako epaileek ere halaxe esaten dute. Martin eta Beni Irurita eta Imanol Lohiartek ustiatzen duten behitegiak garraile izan zen atal desberdinetan. Martinekin telefonoz hitz egin dugu eta Txapelketa "historikoa" izan zela esan digu: 5 behi aurkeztu zituzten eta hiru atal desberdinetan irabazi, horien artean sari berezia, txapelketako erraperik onena duen behiarena.

Antolakuntzatik azpimarratu dutenez, Tolo-

san izandako txapelketan Euskal Erkidegoko eta Nafarroako ustialekuek parte hartu zuten, "hobekuntza genetikoaren eta ganaduzaleen eguneroko lanaren bidez lortu diren lorpenak" ezagutzera emateko.

Txapelketaz gain, sektoreko enpresen txokoak ere egon ziren beraien produktuen edo zerbitzuen berri ematen. Txapelketaren helburuen artean "esne-sektorea sektoretik kanpo dagoen jendeari gerturatzea ere bada. Horregatik, bertaratu ziren guztiek aukera izan zuten behiak bertatik bertara ikusteko eta baita ekoizten dugun kalitatezko esnea eta egiten diren produktuak dastatzeko".

Hurrengo batean Lanzko behitegi honi buruz luzeago hitz egingo dugu.

Onddo eta zizen hilabete izan dugu joandakoa



Urtero bezala, Ultzaman eta Basaburuan onddoen eta zizen inguruko jardunaldiak egin dira. Azaroaren 15eko Ultzamako Onddoaren Eguna izan zen jende gehien gerturatu zuena.

Miko-sukaldaritza ikastaroak, bisita gidatuak, hitzaldiak, tailerrak. Hau eta beste asko izan dute Ultzamako onddo eta zizen astean. Larraintzarko frontoian eman zioten amaiera asteari onddoaren egunarekin. Jende dezente bildu zen bertara. Besteak beste onddoei buruz ikasteko haurrendako jokoak, zizen sailkapena, azoka, erakusketa eta beste egon ziren.

Basaburuan, bi asteburutan pintxo-potea egin zuten, onddoz eginiko pintxoekin. Bost ostatutan egin zuten: Udaben, Berueten, Jauntsaratsen, Orokietan eta Itsason. Tartean ere, mendira ateraldi bat egin zuten, onddo eta ziza bila.

Basaburuko eskolako galdararen urtebetetzea

Pentsa daiteke albiste bat egitea honekin ez duela inolako zentzurik, baina ez da hala: duela urte bete Oihanzabal eskolan zurez elikatutako galdara instalatu zen. Azaroan Bioener enpresakoek hitzaldi bat eskaini zuten eta baita bideoa aurkeztu ere. Arrazoia enpresako langilea den Jaimek azaldu digu: "badirudi jendeak

beldur diola eraikin publiko batean egurrez elikaturiko galdara bat jar-tzeari.

Askotan pentsatzen dugu guztiguztia automatizatua egon behar dela, eta aurtengo esperientziak hala ez dela erakutsi digu". Patxi udal langileak "pozik" dagoela konfirmatu digu: "lana badu ere, oso ongi funtzionatu du galdarak eta kontsu-

moa baliteke hamar aldiz gutxiago izatea". Irudian agertzen den bezala, bideoan aurkeztu zuten ekimena, "berrikuntza interesgarria eta positiboa" baita.

Patxiarekin hitz egiten komentatzen digu, hori bai, eraikina oso handia dela eta galdara ez dela guztia berotzera ailegatzen, beste gas-galdara bat dagoela, baina "beste horrek egiten duen lana txikia" dela.

Ttikienak saski ederra jarri du zozketan



Izan ere, gurasoek ordaintzen duten kuota ez da nahikoa haur eskola aurrera ateratzeko. Basaburuko eta Imozko udalek ere laguntzen dute, baina diru gehiago lortzeko ekimenak egin behar dituzte urtean.

Eguberriak gertu daudela probestuz, abenduaren 22ko zozketarekin batera aterako da zenbaki saritua, beraz, denbora daukagu oraindik txartelak erosteko. Saskia Jauntsarasko Apeztegi-berria ostatuan dago ikusgai, eta txartelak erosteko aukera ere badago bertan.

Bestela, eskolako haurren gurasoek ere badituzte, eta, herri ez-

berdinetakoak direnez, Etxalekun, Latasan, Muskitzen, Urritzan eta Aizarotzen erosten ahal dira, gurasoak aurkituz gero.

Diruaz gain, proiektua aurrera eramateko jendea ere behar dute, eta guraso elkarteak jakinarazi nahi du, nahi izanez gero, edonork bisitatzen ahal duela goizetan, Etxalekun, Imozko udaletxeko azpiko solairuan duten haur eskola, edozein galdera egin zein zalantza argitzeko.

Ekimen gehiago iragarri dituzte urteberriarekin batera, beraz adi egon beharko.

Elkartasun egunaren **kronika txikia**



Urte batzuk dira jada Basaburuan egun hau euskal presoekiko elkartasunez “ospatzen” dela. Zonaldeko jende askorendako, “egutegian markatzen den egun horietako bat da” antolakuntzatik esan digutenez. Aurtengoan, 94 lagun elkartu ziren herri bazkarian Jaunsarasko kiroldegian. Horren aurretik, giro lasaiago

batean pilota goxua-ekin bi partida jokatu ziren.

Bazkaldu ondoren, bailarako trikitilariak giroa alaitu zuten. Hauen emanaldia amaitu eta gero, elkartasun taldeko kide batek bildutakoei gogorarazi zien “estatu frantsesa eta estatu espainiarrak haien espexxe politika krudelarekin jarraitzen dutela eta oraindik 455 preso

76 espexxetan banatuta jarraitzen dutela, horietatik 5 bakarrik Euskal Herriko espexxeetan. Horretaz gain, 8 preso gaixotasun larri eta sendaezinak dituzte. Beraz, gaineratu zuenez, “espexxe politika honen helburu argia, presoak haien inguru sozial, afektibo eta familiarrarengandik urruntzea eta deserritzea da; gainera, Euskal Herriko bizitza politikoan parte ez hartzera zigortuta daude.

Ekitalditxoak hitz hauekin bukatu zen: “Bada garaia denak elkarturik borrokatzeko eta mugitzeko giza eskubideen urraketa hauen aurka”.

Arratsaldea jendet-suago hasi zen Erka-metz dantza taldearen saioarekin eta herrikirol “berriei” leku egin zieten geroago: ahotz

pakoi lehiaketan sei talde hartu zuten parte.

Baileraren arteko “desafio” honetan 7 pertsonenez osatutako taldeek 5 minututan 330 kilo inguruko pakoi bat arrastaka eraman behar dute. Herri kirolean “gizon probak” deitzen direnak, desberdinak izan ziren zenbait eremutan: bi emakumek egon behar zuten gutxienez talde bakoitzean eta haur talde bat ere sortu zen. Azken hauek “harri-dura” sortu zieten helduei, eta “eremu honean etorkizun oparoa dagoela pentsarazi”. Baztan-Malerreka aldeko talde bat ere animatu zuten.

Iluntzen hastean Gabenara taldeak erreleboa hartu zien kirolei eta jai giroan ailegatu ziren afarira. Gabenarakoekin goizeko seiak arte luzatu zen festa.

Kaaño **etxearen** kalitatea saritua



Azaroaren 12an, Nafarroako Mendialdeko turismo-kalitateko lantaldeak 48 establezimenduren kalitate-txostenak aztertuta eta onartu zituen, horien artean Arrarasko Kaaño etxea.

Hamabi urte dira jada bertan lanean daudela eta “pozik” agertu da Kaaño Alabeta: “Lan handia egin dugu ziurtagiri hau lortzeko”.

Cederna-Garalur fundazioak ematen du ziurtagiria eta bezeroei eskaintzen zaien tratuan eta erraztasunen kalitatean datza. Bitxikeria gisa, irratitik deitu genuen horren inguruan hitz egiteko eta ez zekiten ezer...

Albertak esan zigun kalitate ziurtagiri hau, gainera, ez dela beste batzuk bezala dirua ordainduz lortzen.

Aitor Senosiain **aizkolaria** lehen mailara



Azaroaren 13an Donezteben jokatu zen Aizkorako bigarren mailako finalean garaile izan zen Aitor Senosiain. Olaguearrak, bigarren mailako txapela buruan, heldu den urtean lehenengo mailan jokatzeko aukera izanzen du.

Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan jokatu zuten finala, eta minutu bat baino gehiago atera zion Asier Pellejero aresoarrari.

Egun berean lehen mailako arpana kanporaketa jokatu zen. Denboraldiko azken sailkatuetatik bat jaitziko zen bigarren mailara.

Bi bikote aritu ziren: Adrian Berruezo (Ibero) eta Alberto Oteiza (Larrageta) batetik, eta Esteban eta Martin Pikabea (Grendiain) bestetik. Ultzamarrak izan ziren gaitzaile, eta beraz, bigarren mailan aritu beharko dira heldu den urtean.

Iritzia

Neurri kontuak



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Aktore bat txikia denean, takoi eta zoru altuak jartzen dizkiete oinetakoetan, bestela Tom Cruise (1,63 m.) hanka punttetan jarri beharko luke Uma Thurman-i (1,82 m.) musu emateko. Gag umiliagarria, eszena erromantiko baten faltan.

Badira, ordea, altuera fisikoa baino desberdintasun handiagoak, takoi

eta zoru altuekin konpontzen ez direnak. Europak berdintasunaren neurria omen du helburu, baina praktikan sozio baxuak eta altuak daude, pobreak eta aberatsak, Europako lehen lerroan daudenak eta Europako zantzetan.

Elkarrekin egiten ari diren filmak nabarmenegiak ditu desberdintasunok, eta oso dira krunelak bertako eszenetan

agertzen diren kontrasteak, proiektu komun baten kontraesanak, goiera moral eskaseko interpretazioak.

Filmaren arduradunak pozik daude hasi omen direlako zoruak jartzen ahulenen oinetan. Baina filmaren tesia da: Greziak Alemaniari musu. Tokitan gaude berdintasun adostu baten eszenatik.



Irudi batean

Marcosen sustraiak

Nondik nator? Nondik dator nire familia? Non daude nire sustraiak? Egin al dizkiozu galdera horiek zeure buruari? Buenos Aiestik galdera horiek erantzutera etorri zen gazte baten istorioa duzu hemen.

Jausarastik nenbilen azaro hasierako ostiral batean, etxera joateko eta asteburua hasteko prest. Bat-batean telefonotik Erbitiko Pablok hots egin zidan: “Aizu, Argentinako tipo bat dut nire etxean egun hauetan eta bere arbasoen jatorriaren bila etorri da, eta pentsatu dut interesgarria izango zela...” 10 minutu geroago Erbiti-Orokieta kontzejuko eskola zaharrean geunden Pablo, Rakel, ni eta Marcos, argentinarra. Ardo botila eta bailarako gazta lagun, Marcosek haren istorioa kontatzen hasi zitzaigun, ilusioz betea.

Buenos Airesko aitzak zahartzaroa hurbil ikusi eta haren familiaren sustraiak non zeuden ikertzen hasi zen. Bitxia da nola askotan gazteak garenean ez diogun inolako garrantzirik ematen gure sustraien jatorriari, baina noizbait jakin-min hori esnatzean ase arte ez da gelditzen. Ikerketa aurrera joan ahala, familiako pertsona gehiago inplikatu ziren. Familiaren zuhaitz genealogikoa osatu zuten, baina Jose Maria Erbiti herenaitonaraino ailegatu ziren. Ez zekiten non jaio zen, bakarrik Uruguayen ezkondu zela eta bertan “vasco” jartzen zuela.

Europako zenbait hiritan bisitan egon ondoren Marcos Erbiti Erbiti herria

joan zen bere ikerketa hasteko, eta Pablo eta Rakelen etxea bilatu zuen “couchsurfing” deitutako sareari esker. Jendea egun batzuetarako doan jasotzen duzun sarea da hau. Baliteke batzuentzat oso normala izatea Hego Amerikako jendea hona hurbiltzea beraien sustraien bila, baina ni harritu ninduen. Basaburuko udaletxean galdetuta, komentatu zidaten duela gutxi Buenos Aiestik jaso zutela mezu bat Arraratsen arbasoak zituen Barberia batek galdetzen zuela.

Marcos argentinarra Erbiti herrira joan zen abizen bera zuelako, hasiera puntu bat zen. Halere, hegoamerikar horren bilaketak niri ere galderak sortarazi zizkidan. Noiz hasi ziren erabiltzen abizenak? Herriekin lotzen hasi al ziren abizenak? Hemendik hona galdetuta, zenbait informazio lortu nuen.

Saretik begiratzen, Erroman hasi zirela erabiltzen aurkitu nuen, nahiz eta penintsulara askoz geroago ailegatu. Juan Vidal Abarca, genealogia eta heraldika zale amorratuak hala zioen abizenen sorrerari buruz: “Agiri batzuek erakusten dutenez, VII. menderako jada erabiltzen ziren, baina finkatzeko denbora gehiago behar izan zuten”. Jendeak hasieran izena berrik ez zuen erabiltzen, izen latinizatua, baina, denborarekin, askok izen



Juan Tomás Erbiti, Marcosen birraitona, Uruguaiako “La Plata” futbol taldeko presidente izandakoa

berbera zutela ikusita (Antonius, Alfonso, Alonso), patronimikoa erabiltzen hasi ziren. Horrela, aitaren izena Martín baldin bazen, semearen abizena Martínez izango zen, eta aita Pedro baldin bazen, semea Pérez. Baina horrela ere nahasketak sortzen zirenez, klase aberatsak hirugarren izen bat erabiltzen hasi ziren.

Hirugarren izen horrek beren jatorria adierazten zuen.


Herriar xumeak ere abizen patronimikoa baztertu eta bestelakoak erabiltzen hasi ziren, adibidez beren lanbidearekin edo ezaugarri fisikoekin edo herriarekin lotuta zeudenak.

XVI. mende aldera, elizak Trentoko Kontzilioa egin eta bertan zenbait agindu garrantzitsu eman ziren: momentu horretatik aurrera parrokia guztiek jendearen izenak idatzi behar zituzten jaiotze, jaunartze, ezkontze eta heriotzetan. Horri esker urte horietara arte da posible aurkitzea arazo handiegirik gabe familien jatorria.

Marcos Erbiti handik eta hemendik galdeka hasi zen, jende adituari galdetzen, Iruñeko Artzapezpikutzan ere egon zen paper eske... Baina zorterik gabe. Kasualitatez, arbasoaren ezkontzapaperean zerbait antzeman zuen. Dokumentuan “Ortiz” jartzen zuela uste zuen, ez al zen “Ostiz” izanen? Bigarren aukera horretan eskualdeko bi herri ditugu eta nolabait asko mugatzen du eremua...

Asteburua ederki pasa ondoren, lanera itzuli nintzen: irratsaioa prestatu eta egin, telefono dei batzuk egin, mezuak, jendearekin hitz egin... Zenbaki ezezagun batetik Marcosen deia jaso nuen

berriro: “Aizu, aurkitu dudala nire herenaitonaren jaioterria, Auzakoa zen gizona!” Poz-pozik zegoen Marcos, lortu egin zuen egun gutxi batzuetan haren familiaren historian beste pausu bat atzera joatea. Deitu ninduenean Ultzamako autobusa hartu behar zuela esan zidan eta herria bisitatu. Auzan, Jose Mari Berasainen etxera joan eta bertan egon zen pixka bat galdetzen: “Errota zaharrean bizi omen zen familia, baina ni bertan ez dut halakorik inoiz ezagutu”, zioen Jose Marik, “baina Ostiz, bai, gure etxeok Ostiz ziren...”



Momentuz hor bukatu zuen Marcosen bere bilaketa, pozik, eta galdetu nion ea aitari jada zerbait esan zion eta ezetz erantzun, baliteke eguberritako oparia egitea. Garagardo batzuk hartzen egon nintzen Marcos Erbitirekin eta hamaika konturi buruz hitz egin genuen, baina eskatu nion berak ze sentimendu izan dituen adieraztea, eta hau idatzi zuten:

“Gehienbat dudan sentsazioa da neure burua hobeki ezagutzen eta ulertzen dudala, nahiz eta dena gertatu berria izan. Harro ere sentitzen naiz badakidalako gure aitzak gogo handia zuela jakiteko zehatz-mehatz bere berraitona Euskal Herriko zein aldekoa zen. Nik uste dut bera oso identifikatuta sentitzen dela euskaldunen kultura eta izaerarekin (adibidez, paletaz jostatzeari buruz esan nitzun hura, oso buru gogorra izatearena, Osasuna zalea izatearena, eta abar)


Ez dakit euskaldunok buru gogorrak garen edo ez garen baina tira, egun horietan handik eta hemendik ibili ginen abizenak eta jatorria gora eta behera eta pentsatu nuen ona dela bakoitzak nahi duen momentuan haren sustraiak buruz galdetzea, garena eta izan garenarekin konektatzen baikaitu.



ESKERRIK ASKO ZOZKETAKO LAGUNTZAILE GUZTIE!



MENTXU



JOXE



Aroztegiko harginaren mutiko bihurria (1)

Aroztegiko hargina. Hala deitzen zioten Jose Huarte Oiartzuni. Maria Cleofé zen honen andrea. Nahiz beorburuarrak izan, ezkondu ondoren Gaskueko Monteroaren etxera joan ziren bizitzera. Lehen lau ume zaharrenak Gaskuen jaio ziren eta Aroztegira pasatu ondoren bizitzera, hemen beste lau izan zituzten.

Gaur harginaren seme bati egin diogu elkarriketa, Jose Ignacio Huarte Cleoferi, Iruñean bizi denari baina bihotza Aroztegin duenari. Bihotza eta txokoa, Aroztegin egin duen etxean izaten baita erditan bederenik. Hirurogei eta hamar urteko gizon gordina, umoretsua eta jolasturia.



Jose Ignacio

Zergatik aldatu ote zen zuen aita Gaskuetik Aroztegira?

Ziur ez dakit, baina ez dago aunditz pentsatu beharrik, logikoa da, Gaskueko etxea, Monteroaren etxea deitua, oso ttikia zen, ez zen on familia handi batendako. Aroztegiko Apezetxera aldatu ziren eta hor, zerbaiten truke egin izanen zuen gure aitak, betebeharrak batzuk baikenituen: elizako garbitasuna eta abar...Hori 1943 edo 1944. urtean izanen zen eta ni Aroztegin jaio nintzen, 1945. urtean.

HAURTZAROA AROZTEGIN: 1945-1960

Apezetxea etxe ederra izanen zen.

Bai, bai, etxe bikaina garai hartan, lau logela, neska-mearendako gela, bi sala, sukaldea eta, gainera, balkoian bazuen komuna. Beste inon ez zen komunik. Momentu hartan ezgaitua zegoen baina maistra etorri zenean gure etxera ostatuz, gure aitak konpondu egin zuen.

ESKOLAKO KONTUAK

Aroztegi bezalako herri ttikietan ez zen beste gainerako herritan bezala izaten eskola. Herri ttiki hauetan aldikako eskola edo "escuelas de temporada" deituak izaten ziren.

Jose Ignacio, erran iezaguzu nola izaten zen zuen herriko eskola.

Urtean lau bat hilabetez besterik ez zen izaten. Herri ttikienetan horrela izaten zen. Eskola emateko toki finkorik ere ez zen izaten. Urte batean etxe batean eta hurrengoan beste batean. Aldaketak izaten ziren, umeak nongoak, ba, eskola-gela etxe hartakoa. Eta, gainera, ez zen urtero maistra

izaten.

Nola erran duzu?

Bai, bai, entzun duzuna. Ez zen urtero eskola izaten, maistrarik ez baitzen izaten, herri guztietarako aski ez zirelako, eskatzen ez zelako edo ez dakit zergatik, baina urtero ez genuen eskola izaten.

Eta maistrarik ez zenuten urte horretan nora joaten zineten?

Urte huts horietan Eguaratsa joan behar izaten zen, baina ni, gogoan dudala, oso gutxitan joan nintzen. 20 egun denetara? Ez aunditz gehiagoz.

Entzun dizugu maistrak zuen etxean bizitzen zirela.

Ez beti. Nik uste garai hartan maistra etxean edukitzea dohain izaten zela, eta nork edukitzen zuen maistra? Ba, ume gehienik izaten zuten etxeak. Gu zortzi senide izan ginen eta hasieran behintzat gure etxea zen eskolara ume gehienik igortzen zituena.

Beste etxeetan ere ume aunditz izanen ziren, ezta?

Ez, ez, ez zen hala. Gure adineko ume gutxi tokatu zen garai hartan. Gu baino zaharragoak baziren baina gure adinekorik ez. Gehien gehienak gu ginen, aise.

ELIZAKO KONTUAK

Ttikian monagillo izan zinen.

Bai, monagilloa izan nintzen, 4 urtetik 14 urteak artio, hamar urtez. Pentsa, ni hamabi urtetan hasi



Goiko lerroan: Jose Ignacio, Maria Jesus, Doroteo eta Juani. Bigarren lerroan: Rufino, Ama, Aita eta Filomena. Beheko lerroan: Maria Tere eta Jesus Maria

nintzen lanean eta lanera joan behar izateaz gain, monagillo lana ere egiten nuen. Horrela bi urtez.

Nor zen orduan apez? Eta zer egiteko zenuen zuk?

Nik, ezagutu nuen lehen apez, Don Eulalio izan zen, Eguarasko apez, guk, Aroztegin, ez baiken nuen.

Nire egitekoa zera zen, errepidean oinez zetorrela ikusten nuenean, argizariak ixiki, aldarea apaindu, ...dena prest-presta jarri.

Ezkilak ere nik jotzen nituen: Lehenik luze xamar, mezarako deia; gero, bost minutura, hiru dandak eta beste bost minutura beste bi, eta hiru minutura azkena, mezaren hasiera.

Anekdotaren bat konta dezakezu?

Bai, bai, bat baino gehiago. Kontatzen hasiz gero, honako hau kontatu gabe ezin utzi:

Apezik gabeko parrokia ginen, eta ardoa bai, beti izaten zen, baina behin baino gehiagotan, frankotan ez erratearren, meza ematen hasi eta hostiak falta. Orduan apezak erraten zidan:

-Zoaz Eguaratsa bizikletan eta ekar itzazu hostiak.

Bizikleta eta Eguarasko elizako giltzak hartu eta han joaten nintzen tarrapataka hostien bila. Jakina, joan-etorria igual kostatzen zitzaidan ordu erdi bat eta ni Aroztegira orduko, kontsagrazio tenorea eta apez, eta jendea ni noiz etorri zain hostiak be-deinkatzeko. Horrela izaten zen.

Nonbait oso atzenkorra zen Don Elulaio! Eta besterik ezagutu zenuen?

Bai, gero beste apez bat izan zen, Jose Zalba, Lanzkoa. Honekin harreman handia izan nuen. Denbora hartan nik hamabi bat urte izanen nituen eta gure etxean moto bat erosi zuten. Eta nik ere, aunditz ibiltzen nuen motoa.

Kontua da, apez, Aroztegin meza eman ondoren Nuina joan behar izaten zuela meza ematera, oinez, eta izanen dira 8-10 kilometro. Egun batez, zera erran zidan: Zergatik ez nauzu motoan eramaten? Eta nik baietz. Motoan, atzean hartu nuen eta, ez dakit zer gertatu zitzaigun, baina Eguaratsen, zilipurdika erori ginen. Ni berehala zutitu, motoa hartu eta apez berriz jarrarazi eta eraman nuen.

Lehenbizikoa eta azkena. Handik aurrera ez zuen gehiago inoiz motoan jarri nahi izan.

Erran didazu hamabi urtetan hasi zinela lanean.

Lanean aritzen nintzela erraten badut, ez dut erran nahi, hemen zerbait egin, hara joan, hau eta hura. Ez, ez, erran nahi dut, 12 urte betez gero, ni aitarekin eta hiru anaiekin egun osoan aritzen nintzela lanean; goizeko zortzietan hasi eta arratseko 7etan buka. 8 edo 9 ordu egunero.

Eta denbora horretan monagillo izan nintzen eta gainera, erdi apez ere bai, herrian apezik ez izatean...ja, ja, ja!

“Ilusioz bizi dut **aldaketa** hau, nire esku dagoena emateko gogoz”

Urte asko daramatza politikan Paula Iberok, Atetzen lehen eta Nafarroako Gobernuan orain. Mari Jose Beaumonten (Justizia, barne eta funtzio publikoko kontseilaria) idazkaria da Nafarroan gobernu berria eratu zenetik.



Kontseilariaren lantaldearen familia irudia, Paula Ibero, eskuineko izkinean dago.

Goitik behera aldatu da Nafarroako Gobernu. Zu ere aldaketa horren parte zara, nola daramazu?

Nik, beste nafar askok bezala, aldaketa sakon baten alde lan egin dut eta lan egiten jarraitzen dut. Izenean eta izanean aldaketa sakona, Nafarroa gobernatzeko eran. Ilusioz bizi dut aldaketa hau, nire esku dagoena emateko gogoz.

Nola jaso zenuen “Aldaketaren Gobernuan” lan egiteko proposamena?

Mari Jose Beaumontek deitu ninduen uztailaren 18an. Bere idazkari izateko proposatu ninduela adierazi zidan, eta ordu batzuk emanen zizkidala pentsatzeko, erantzuna baiezkota izatera animatu ninduen gainera. Hasieran moztuta geratu nintzen, eta EH Bilduko talde parlamentarioarekin hitz egin behar nuela esan nion, legegintzaldi honetarako taldearen laguntzaile izan behar bainintzen. Familia eta lagunekin ere hitz egin behar nuen, noski.

Dena den poza ere sentitu nuen, alde batetik profesionalki lan interesgarria iruditzen zitzaidalako, eta kontseilariak nigan konfidantza hori jarri zuelako.

Atezko udalean ere egon zinen, aldaketa handia batetik bestera?

Zerikusirik ez. Lana guztiz ezberdina da, baina Atez bezalako udal txikian zinegotzi bezala egin beharreko lana eta konpromezua ere izugarri handiak dira. Lan ezberdin asko egin behar izan nituen Atetzen: bailarako ur kontadore guztiak begiratzea, gastua murrizteko helburuz; urarekin zerikusia zeukan guztia landu dut, gizarte gaietarako arduradun...

Beaumont kontseilariaren idazkari izatea espero zenuen bezalakoa da?

Egia esan, ez nuen uste lana hainbestekoa eta hain ezberdina izanen zenik. “Makro-departamentu” bat dela esan nuke nik. Hala ere, lanak ez nau izutzen, urte asko daramatzat idazkari lanetan eta politikaren munduan.

Zer esan zuten lagun eta senideek lan berriaren inguruan?

Zoriondu egin ninduten, eta animo asko eman. Baten batek ere esan zidan lehen baino askoz gehiago lan egin beharko nuela...

Zuk, barnean zaudela, uste duzu deitutako aldaketak, aldaketa sakona ekarriko duela?

Hori espero dut, eta horretan sinisten dut. Denbora behar da ikusteko. Nafar gizartearen gehiengoak horren aldeko apustua egin du, eta gutxinaka aldaketak ikusten joanen gara.

Gauzak barrutik ikusi eta bizitzen direnean, hau da, errealidadea ezagutzen denean, aurretik dugun erronka handiaz konturatzen zara. Krisi ekonomikoa eta aurreko gobernuak utzitako herentzia gehitu behar zaio gainera.

Eta azkenik, nola uste duzu nabaritutako dugula aldaketa gure zonaldean?

Orokorrean, espero dut Nafarroako beste hainbat zonaldean bezala, lehen sektoreari babes osoa ematea. Gainera, zonaldeko udal gehienek Gobernu babesten dutenez, ilusioa eta lan egiteko gogoia handiagoak dira. Horregatik, uste dut aspal-ditik gurean aldarrikatzen diren ekintzak planifikatu eta egin ahalko direla.

Elekzioak edo **hauteskundeak**

Datorren abenduaren 20rako pentsatua genuen **Zozketa Mundiala** egitea. Eta horrela jarri dugu txarteletan eta, gainera, irratitik zuzenean 4:30ean emanen dugula. Baina eguna aldatu beharra izan dugu, elekzioak edo hauteskundeak baitira, Espainiako Kongresurako hauteskundeak. Eta horregatik 27an jarri dugu **Zozketa**.

Txartelak saltzerakoan fetxa edo data nola aldatu dugun azaldu behar izan diedanean pentsatu izan dut, nola adierazi data aldaketa? **Elekzioak** direla esan? Edo **hauteskundeak** direla esan? Eta horrela konturatu naiz jende gehienak **hauteskunde** hitzak zer esan nahi duen ulertzen duela. Nahiz gaztea ez izan.

Hauteskunde hitz honek ez du gure artean denbora askorik. Idatzietan, ehun urte baino gutxiz gehiago agian, baina, **hautatu** edo **hautetsi** hitzak bai, horiek betikoak ditugu, gutxienez,

Iparralde guztian eta Nafarroako zenbait tokitan. Imotz eta Basaburua aldean eta hortik mendebaldera, hala ere, **aukeratu** hitza erabiltzen da eta ez hautatu. Nolanahi gisa, hemengo azientadunek ederki ulertzen dute zer den, esate baterako, ardiak “hauten saltzia” edo “hauten erostia”.

Eta denok ulertzeko zer den **hautan saltzea**, zera esanen dugu: artaldeko ardi batzuk hainbestean saltzean, erostunari aukera ematen zaiola, nahi dituenak bereizteko eta eramateko. Ez da besterik.

Eta hitz hauen harira badira beste hainbat, beharbada, ikastea komeni zaizkigunak: hautagai, hautaketa, hautatzaile, hautesle, hautetsi(a)... (candidato, elección, elector, elegido)

Gaurkoan ardo frexko lodi samarra atera zait. Hurrengoan ea ardo arinagoa hautatzen dudana, nire eta zuen gusturako ardo hautagoa, alegia.

BAZEZAKETEN ETA... BADEZAKEGU

Erbitin, etxebertzetarrek

Azkeneko Pulunpen gerra aurreko euskaltzale baten berri eman genuen. Eta oraingoan, gerra aurrekoak izan arren ere, gerra ondoren euskarari mesede egile batzuen berri emanen dugu.



Euskaltzale hauek Erbitiko Etxebertzeko jabe eta nagusi izandako Severino eta Luis Oskotz Ezkurra dira. Erbitiko luzeak bezala oso ezagunak.

Gerra aurrean euskal nazionalismoaren miresle behar bada? Baliteke, baina gerra ondoren atzera egin zuten. Hala ere, euskarari dagokionez aurrera egin zuten, beti izan ziren euskaren aldekoak, militanteak, beti euskaraz egiten zutenak. Eta Erbitiko ume eta gaztetxoekin zer esanik ez. Erdaraz sumatu ez geroz zerbait esanen zieten. Militanteak ziren.

Beharbada, Erbitin euskarak oraindik indarra baldin badu, Oskotz anaiei esker da. Hori da nik beti sumatu eta entzun izan dudana.

Irakurle, zuk ere zerbait egin dezakezu. Zure esku dago herriko ume guztiekin euskaraz aritzea. Beti euskaraz aritzea. Hau da, inoiz ez erdaraz.

HIZTEGIA

-MENDEBALDEA: Sartaldea. Eguzkia sartzen aldea.

-ADITZA: BI MODUTARA: Hautatu, hauta, hautatzen

edo hautetsi, hautets, hautesten.

-IZENONDOA: Hauta, AUKERAKOA, bikaina. Gizon hauta= gizon bikaina.

Hautagoa= hobea, bikainagoa.

“ Edozein soinu baliagarri izan daiteke artelan bat egiteko”

Eskozia aldean egon da azkenengo urteetan ultzamako gazte hau baina hemendik gutxira etxera itzuliko da gabonak direla eta. Eguneroko soinuekin musika “desberdina” sortzen ikasten aritu da Oiz, eta horren harian galdetu diogu, berak esaten duen bezala, ea mundu interesgarri bat dagoen soinu bakoitzaren atzean.

ZER DA ZEHAZKI IKASI DUZUNA?

‘Soinuaren Artea’ deituriko masterra ikasi dut (ingelesez Sonic Arts) Glasgowko Unibertsitatean. Iaz hasi nintzen eta aurtengo irailera arte. Bilbon Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi ondoren soinuan espezializatu nahi nuela erabaki nuen eta Glasgown hartu ninduten. Ez nuen bi aldiz pentsatu...

NOLATAN EMAN DIZU HORTIK?

Ttikitatik musika izan da nire pasioa. Aralar Musika Eskolan pianoa ikasi nuen; kitarra eta trikiarekin ere saiatzen nintzen noizbehinka. Urte haietan denbora-pasa gisa hartzen nuen, ez nekien zer izan nahi nuen handitan. Gero Bilbora unibertsitateira joan eta karrera bukatzean ez nekien zer egin, nora jo. Londresko McDonald’s batean egon nintzen ia urtebetez eta zulo beltz hartatik atera behar nuela ikusita, masterrak begiratzeko hasi nintzen. Glasgowk interesa biztu zidan. Konturatu nintzen Ikus-entzunezkoetatik entzunezkoa, soinua interesatzen zitzaidala (eta zaidala) batez ere. Beraz, horretan espezializatzea erabaki nuen.

ZURE EGUNEROKO BIZITZAN NOLA ERLAZIONATZEN ZARA SOINUAREKIN?

Zenbat eta gehiago soinuarekin eta musika-rekin lan egin, garrantzi gehiago ematen diozu isiltasunari. Egun osoa soinuak editatzen egon ondoren, behin eta berriz hots berdinak aditzen, isiltasuna kontu preziatua da! Eguneroko soinuekin zerbait sortzea da interesgarriena niretzat. Arte bihurtzea entzuteaz ohitu garen asotsak eta erreparatzen ez diogun soinu horiek. Uste dut masterrak hori irakatsi didala batez ere: edozein soinu baliagarria izan daitekeela artelan bat egiteko. Beldurrik ez izan jendeak zer errango duenari; zuk gustuko baduzu zergatik ez? Egiten duzuna justifikatzeko arrazoiak ematen badituzu, koherentea baldin bada buruan duzun ideiarekin, aurrera.

ZERTAN INSPIRATZEN ZARA KONPOSIZIOAK EGITEKO?

Azkenaldian minimalismoaren eta ‘ambient’ musikaren oinarriak hartu ditut nire lanak egiteko. Minimalismoa gaur egun oso hedatua dago. Etengabe errepikatzen diren melodiak eta baseak, jendearen memorian sartu eta ahalik eta errazenen gogoratzeko. Mugimen-

du hau 1960. urtearen inguruan hasi zen, musikari estatubatuar batzuk esperimentatzen hasi zirenean, eta pixkanaka mundu osoan zabaldu. ‘Ambient’ musikak bertzetik eguneroko soinuak erabiltzen ditu eta musikalki interesgarri bihurtu. Errekak, itsasoa, sukaldeko hotsak, oihuak, trafikoa eta abar grabatu eta zerbait sortu horrekin, adibidez. Aspergarria ematen du? Zehaztasunez entzunda mundu interesgarri bat dago soinu bakoitzaren atzean.

ZE INSTRUMENTU ETA LANABES ERABILTZEN DUZU HORRETARAKO?

Eguneroko bizitza da instrumentua. Jakina, musika instrumentuak ere erabili ditut; Glasgowko unibertsitateak bitarteko ugari ditu ikasleek erabili ditzaten. Masterreko lan finalerako marinba, pianoa, kitarra, txinatar gong-a eta mota guztietako perkusioa erabili nuen uraren soinuekin eta nire ahotsarekin nahastuz. Betiko musika eta melodiei ‘buelta’ ematea zen nire oinarria; ‘gaizki’ jotzen duen zerbait ‘ongi’ joaraztea. Hauek grabatzeko zer lanabes erabiltzen den ere asko definitzen du azken emaitza. Mikrofono batek ez ditu ber tze batek bezala soinuak grabatzen. Lan honek duen muga bakarra aurrekontua da; zehaztasun gehiagorekin eginen duzu lan zenbat eta ekipo garestiagoa izan.

ZERBAIT GEHIAGO GEHITU NAHI?

Nire Facebookeko orrialdean orain arte egin ditudan lan batzuk ikusgai daude. Interesatua dagoenarendako: <https://www.facebook.com/joxoizv/>

Herri kirol berrien garaia

Apustuak kirolari lotuak egon dira beti Euskal Herrian, eta baita baserriko lan edo egitekoei ere. Hala sortu omen ziren herri kirolak, eta hala jarraitzen dute herri kirol berriak sortzen



Herri kirolak ez daude krisian. Askok zioten zaharkituak zeudela, ez dutela lehengo afiziorik sortzen... baina ez da horrela; herri kirolek berrasmutzen jarraitzen dute, gaurko lan edo gustuei loturik.

Izan ere, herriak sortzen duen kirola da herri kirola. Herriak apustu egiten jarraitzen du, eta honela, gazteengan ere afizio handia sortu da azkenaldian. Gure herriak horren lekuko izan dira.

Adibiderik garbiena aizkora saio berriena da. Berezia guztiz, enborrak moztu beharrean kotxeak moztzen baitituzte. Xulapain eta Deierri arteko apustu batetik sortu zen duela hiru bat urte, eta hainbat herritan egin dituzte apustu eta erakustaldiak.

Eltzaburuko jaietan egon ziren duela gutxi. Bertan Martin Urriza eta Orein Mondragon izan ziren aurkari. Lehenengoa aizkora erabiliz eta bigarrenak motozerra, zeinek erdibitu kotxe bat lehengo. Aizkorak irabazi zion gainera motozerrari.

Bestelakoak ere ikusi ditugu, adibidez Julen Kañamarek Aroztegiko aizkolariak parte hartu zuen apustua. Kañamaresek aizkoraz egurra moztu behar zuen, eta Oskar Goñi errezuarrak (Deierri) auto bat. Azken hau izan zen garaile gainera.

Afizio handia sortu du apustu mota honek, eta gazte zein zahar, irribarrea ahotan hurbiltzen dira honakoak ikustera.

Basaburuko elkartasun egunean ere herri kirol berezia izan zuten. Imotzen sortu zuten, eta aurtan Basaburura eraman dute. Ahotz-pakoi dema

desafioa egin zuten. 300 kg inguruko pakoia bultzatzea zen lana, zazpi lagunez osatutako taldeetan. “Gizon proba” izena du honen antzeko kirolak, harria bultzatzearena. Baina, pakoiarekin egitea erabaki zuten imoztarrek, eta hala sortu da herri kirol berri hau.

Gaztetxoek ere parte hartu zuten, eta egia esan, ikaragarria izan zen hauek erakutsitako kementa. Badago etorkizuna gazte hauengan!

Herri kirol berri gehiago!

Azkenaldian apustu ezberdinak sortzen ari dira, eta gurean egin direnez aparte, badira Iruñerri inguruan eta Nafarroako beste hainbat tokitan egiten ari direnak.

Adibide politak dira Berriobeitiko zendean azken bi urteetan egindako zulo egite apustua eta 150 lokotx biltzearena. Lehenengoan, soro batean metro kubiko bateko zuloa egitea zen helburua, binaka, 1000 litroko ur tanke bat bete arte, metro bateko sakonerazko zuloa eginda soroan. Bigarrena 150 lokotx biltzea, haien artean metro batera jarriak. 22 kilometroko lana zen guztira, 150 aldiz makurtuz, aurrera eta atzera lokotx guztiak bildu arte. 2 ordu inguruko lana izan zen.

Iruñeko Txantrea auzoan, aldiz, zaku lasterketa berezia egin zuten. Zakua bizkarrean Ezkaba mendia igotzea zen apustua. Diru ugari mugitu zen, Txantreako herri kirol taldea laguntzeko helburuz.

Onartu behar dugu, beti gustatu zaizkigu apustuak...

Erasoen prebentzioan, zahar zein gazte

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Data horren harira, Ultzaman eta Basaburuan ekitaldi dezente antolatu zituzten hilabete osoan, adin ezberdineko jendeari zuzenduak.



Hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, erakusketak, bideo emanaldiak... dena emakumeen aurkako indarkeria agerian uzteko, honetaz hausnartzeko eta etorkizunean, erasoak desagerrarazteko.

Emakume helduak ahaldunduz

Denen artean, tailer hau azpimarratzen ahal dugu. Lehenengo aldia izan da gure zonaldeko emakume helduak genero rolen inguruan hausnartzera bildu zirena. Lan merkaturatuz ahal izaten dute oraindik ere etxean, zaintzari lotuta bereziki. Bilobak zaindu beharra ere hor dago, eta askotan norberak bere bizitza eramatea zaila izaten da, seme-alabei ezetz esatea zaila baita.

Zenbat aldiz esan diezue seme-alabei ez dituzuela bilobak zainduko hondartzara edo lagunekin Benidormera zoaztelako? Gutxitan ezta? Gehienetan baiezkoa izaten da erantzuna, eta askotan beste zerbaitek egiteko gogoia zenuetentan.

Horretaz hausnartzea zen tailer honen helburua. Erretiratuaren elkarrekin elkarlanean antolatu zuten tailerra, hiru saiotan. 13 emakumek hartu zuten parte. Helburu nagusia, gainera, hori zen, espazio bat sortzea honen inguruan hitz egiteko, orain arte ez baitute honelako espaziorik

izan.

Balorazio oso ona egin zuten bai parte hartu zuten emakumeek bai Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuetako berdintasun teknikariak.

Beharrezkotzat jotzen dituzte horrelako tailerrak, eta udaberrian beste tailer bat egiteko asmoa adierazi dute, beraz erne egon zaitezte.

Prebentzioa haurrengan hasten da

Nola ez, hezkuntza da berdintasunean oinarritutako gizarte bat edukitzearen gakoa. Aurten ere, hezkidetza programarekin jarraituz, Larraintzar eta Jauntsarasko ikastetxeetan lan berezia egin dute. Hezkidetza, zaintzak, genero rolak, estereotipoak... landu dituzte, eta azaroan bereziki, generoen arteko gatazkak sortzen direnean zein portaera eduki.

Aurreko urteetan bezala, abenduan antzezlan bat aurkeztuko dute ikasleek. Abenduaren 18an izanen da, arratsaldeko 18:00etan Larraintzarko Bentan. Antzezlanaren ondoren foruma egingen dute gaiaren inguruan eztabaidatzeko.

Iazko forumetik, gainera, ekimen berri bat sortu zen, etxean hezkidetza nola landu jakiteko gurasoendako tailerrak. Ultzaman eta Basaburuan egin dituzte, eta interes handia piztu zuen, askotan zalantza baitago nola landu balore horiek etxean.

ANA MARIÑELARENA URDANIZ, ARITZUKO HAUR HEZITZAILEA

“Zaila izan da nire haur eskola sortzea”



Aritzun bizi da Ana, eta Iruñean lan egin ondoren, etxean haur eskola bat sortzea erabaki zuen. Iruñean lan egiteko aukera eskasak ikusita, orain, Aritzun lanean arituz zailtasunen gainetik alde positibo asko ikusten ditu.

Noiz sortu zenuen haur eskola?

Irailean hasi nintzen. Proiektua duela denbora dezente nuen buruan, eta azkenean orain jarri dut martxan.

Lehenago ere ibilia zara beste nonbait, ezta?

Bai, 4 urtez Sarrigurengo haur eskola pribatuan, eta Iruñeko Udalaren haur eskola etan ere aritu naiz. Baina orain zaila da bertan lan egitea.

Eta orduan zure kabuz egitea erabaki duzu...

Bai, hori zen geratzen zitzaidan aukera, eta aspalitik buruan nuena.

Eta hemen bizi zara, ezta? Aritzun.

Bai, betidanik bizi izan naiz hemen.

Nongoak dira haurrak?

Bi Aritzukoak dira, Olagueko beste bat, eta laugarren bat Ultzamakoa, hemendik gutxira dena.

Eta euskaraz egiten duzue?

Bai, dena euskaraz.

Haur gehiago izateko asmorik bai?

Ez didate aukerarik ematen. Erregulatuta dago hau, eta lauzpabost haur besterik ezin dut izan. Beste etxe batzuetan aukera eman diete handitzeko, baina nik momentuz demandarik ere ez dut, eta beraz ez dut eskatu. Hala ere, haur gehiago izateko espazio baldintzak betetzen ditut.

Bizitzeko adina diru ateratzen duzu 3 edo 4 haurrekin?

Oraindik langabezia kobratzen ari naiz, otsailera arte. Orduan, momentuz bi haurrekin ongi nabil, hemendik gutxira, gainera, lau izanen ditut.

Hemen gainera etxean zaude.

Bai, eta Iruñean lan egiteko baldintzak ere ez dira onak. Iruñera joateak badu bere gastua, eta hemen antzeko soldata izanen dut. Aseeguruak, autonomo kuotak eta abar ordaindu behar ditut, baina erosotasun aldetik asko irabazten dut. Gainera buruan

nuen beste modu batez egiten dut lan, Iruñeko eskoletan markatuta dago egin beharrekoa.

Eta zein da modu hori?

Bada, ez da berezia; honako hau da eguneko ordutegia: 8:00etatik 9:30 arte iristen ahal dira haurrak; “korroa” egiten dugu, asteburua komentatzeko asanblada bat; fruta edo gailetak jan, eta gero eguneko ekintza nagusia, egunero zerbaitek ezberdina. Ni egon naizen eskoletan egun guztiak berdinak ziren, eta hori aldatu nahi nuen nik. Ondoren, eskuak garbitu, txamarra jarri eta kanpora joaten gara, animaliak ikusi edo belarretan egotera; berriz ere barrura, bazkaldu eta siesta.

Zenbat urte dituzte haurrek?

Iratik bat, Uxuek bi eta sartuko diren biek urtebete eta hamaika hilabete. Adin ezberdinak dituzte, baina nik uste dut haien artean ikasten dutela, elkarri lagunduz...

Zaila izan da honekin hastea?

Bai. Ideiari bueltaka ibili nintzen denbora luzez; eta, azkenik, esan nuen “benga saiatu behar naiz”. Haur eskola sortzea erabaki nuenean, batzuek esaten zidaten inkesta bat egin behar nuela bailaran, jendea ados ote zegoen jakiteko, baina ez zidan denborarik ematen. Gainera gestio asko egin behar izan ditut, martxoan hasi nintzen gestioak egiten. Hiru gurasok baiezkoa eman zidaten haurrak ekartzeko, eta beraz, aurrera. Heldu den urtean haur gehiago badaude eta jarraitzerik badut, ongi, eta bestela curriculumak bidaltzen hasi beharko naiz.

Beraz, zonaldean geroz eta haur gehiago egon hobe zuretzat, ezta? Badago haur proiekturik hemen?

Bai, badira, bi behintzat bai. Bikote gazteak ere badaude, eta beraz haur gehiago egotea espero da (barre artean).



Sexu bereizketarik ez: “Erosi aurretik, pentsatu”


Baloia eta panpina; mutila eta neska. Gizarte patriarkalaren ispilua. «Helduok baloia mutilari ematen diogu, eta panpina, neskarri. Baloia mutilarentzat balio positiboak lantzeko egokia bada, neskarentzat zergatik ez? Neskek 5-6 urterekin etxekoa imitatzeke joera izaten dute, afektibitatea lantzen dute. Helduengan hori nabarmena da; gizonezkoek, oro har, haurrekin komunikatzeko zailtasunak izaten dituzte. Baloia

eta afektibitatea balioak lantzeko egokiak badira, guztientzat dira egokiak, neska izan edo mutila izan».

Haurrari arrazoiak ematen erakutsi behar zaio, baina horretarako aurretik gurasoek gauza bera egitea beharrezkoa da. «Gu gara haurren ereduak. Garrantzitsua da hurrei zer eta zergatik nahi duten entzutea.

Idoia Ugalde

Ultzamar baten liburua salgai



Azaroaren 20an aurkeztu zuen Iruñeko Cor-te Inglesen Sandra Iraizoz eltzaburuarrak bere liburua, “En un segundo tu vida cambia” izenburua duena. Eduki autobiografikoa duen liburua dugu hau eta aurreko Pulunpean aipatu genuen. Momentuz, “oso pozik” dagoela esan digu Iraizozek, “erantzun positiboa” jaso baitu: “Galiziatik, Huescatik eta Madrildik idatzi didate jada haien ikuspuntua emateko eta hitzaldi batzuk emateko. Ez dut jende hori ezagutzen eta garrantzitsua da halako erantzun interesgarriak jasotzea.

Bizitzan pasatako momentu zailen inguruan idaztea hein batean arima biluzteko beldurra bazuen ere, hamaika iruzkin eta ikuspuntu jaso ditu “bide aproposan” doala erakutsiz. Sandraren helburua jendea laguntzea da, eta horretarako hitzaldiak eta aurkezpenak egingo ditu: “Geroz eta tratu txar gehiago dago gure gizartean, ez bakarrik fisikoak eta ez bakarrik bikote harremanetan eta horri buruz luze hitz egin nahi dut”.

Horretaz gain, bizitzako arazoei aurre egiteko moduen adibideak aurkezten ditu Iraizozek, hauen aurrean “jo ta ke zure ametsak lortu arte”.

“En un segundo tu vida cambia” liburua internet bidez erosten ahal da Arburu webgunean eta liburutegietan ere.

Haur bakoitzari, bere oparia, ideia batzuk



Gabonetan opariak denentzat erosteko joera izaten da; horrek sortzen ditu buruko minak. Zein da adin tarte bakoitzerako egokiena?

-6 hilabetetik aurrera: Psikomotrizitatea lantzen duen zerbait.

-3-5 urte artean: Mozorroak, panpinak eta kotxetxoak erabiltzeko moduan daude jada.

-6-10 urte artean: Galdera jolasak, sinboloak, musika tresnak...

-10-11 urtetik aurrera: Mahai-jokoak, amaiera desberdineko ipuinak eta elkarlanean aritzeko jokoak gomendatzen dira.

Jostailuak aukeratzeko gomendioak

-Jostailuek erakargarriak izan behar dute, behin baino gehiagotan erabiltzeko modukoak, arruntenak dibertigarrienak izan ohi dira. Irudimena eta sormena garatzen lagundu behar dute.

-Jostailua, umearen adin eta gustuetara egokituko da.

-Ziurra izan behar da.

-Estereotipo sexistak finkatzeko ez da erabili behar.

-Denek erabiltzen ahal dituzte inolako bereizketarik gabe, eta bien artean erabiltzen badituzte koopera-

zio eta berdintasun baloreak barneratuko dituzte.

-Sexu, etnia eta kulturen arteko desberdintasunak errespetatzen lagunduko du.

-Ez du indarkeriazko portaerarik bultzatuko, kontrako baizik, gizarte baloreak eta pertsonalak bultzatzen lagunduko du.

-Publizitateak inoiz ez du eraginik izan behar norberarengan.

Jostailua tresna bat da bakarrik, garrantzitsuenak jolasa da.



IZENA: Jolasean Ikasi, Musikaz Hazi

EGILEA: Kontukantari

AZALPENA: Kontukantari txotxongilo taldeak 10 kanta ezagun eta herrikoi abesten dizkigu bere estreinako lan honetan. “Txiki Txikia, Txakur bat, Kanuto, Txan Txibiri, Ran Rober Ran, Sorgina Pirulina, Baga Biga Higa, Ixil-Ixilik, Itsasontzi baten, Ez goaz lanera eta Gora ta gora beti”.

Adina: 00-04, 05-09



IZENA: Ehiztariaren isilaldia

EGILEA: Luis Garde

AZALPENA: Ezkaba, 1938ko maiatzaren 22a. Preso matxinatu talde batek Iruñea ondoko San Kristobal Gotorlekuko ateak ireki ditu. Ihes jendetsua giza ehiza baten hasiera izanen da. Bi iheslari askatasunaren bila dabiltza inguruko haranetan barna. Donemartie, gaur egun. Hedapen urriko poemak idazle batek Ezkabako ihesaldiari buruzko nobela bat hastea erabaki du. Bildutako agiriak eta lekukotasunak aztertu bitartean, bere memoriarekin bakarrean gelditu da.



2015eko **URRIA** Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIOZAK:

BASABURUA

AIZAROTZ

Saioa Alberdi Duart, Juan eta Miren Josuneren alaba, 2015eko urriaren 8an.

IMOTZ

ZARRANTZ

Martxelo Mingot Zabaltza, Alejandro eta Maria Teresaren alaba, 2015eko urriaren 10ean, *Luxeneko* bordan.

ZORIONAK JAIOPERRIEN GURASOEI!

EZKONTZAK:

LANTZ

Jose Mari Mariñelarena Saralegi, Lanzko *Matxi-nekoa*, eta Nerea Elizalde Munarritz, Iruñekoa. Ezkontza: 2015eko urriaren 10ean. Iruñean biziko dira.

URTE, UME ETA ZORIONAK PERRATAKA EZKON BERRIEI!

HERIOTZAK

ANUE

OLAGUE

Gerardo Larralde Makaia, *Sunbilleneko* nagusia. 2015eko urriaren 22an hil zen.

ATETZ

HIRIBERRI

Juan Miguel Barberia Huarte, Etxeberriko nagusia, 2015eko irailaren 24an hil zen.

BASABURUA

BERUETE

Melchora Lanpreabe Segura, *Mittoneko* etxe-koandrea, 2015eko urriaren 1ean hil zen.

Braulio Etxarri Ripa, *Barrantxeko* nagusia, 2015eko urriaren 31an hil zen.

ULTZAMA

ALKOTZ

Angel Beuntza Urritza, 2015eko urriaren 20an hil zen.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



Braulio




Melchora



Angel



Duartarrak



Alejandro eta Martxelo



Jose Maria eta Nerea

Igel gorria

Muxarraren artikuluak arrakasta izugarria izan du Pulnpeko erredakzioan: deiak, gutunak, e-mailak, errosarioak gure ate aurrean... Gure basoetako animaliei buruzko artikuluak beti egon ohi dira polemikaren erdian, eta hala jarraitu nahi dugu hurrengo honetan ere, igel gorria aukeratu dugulako gure protagonista gisa.



Guztionatik ezaguna den animalia da igela. Has gaitzen datu teknikoekin: "Baso-igel gorria (*Rana temporaria*) ranidae familiako igela da. Europa osoan eta ipar-mendebaldeko Asian bizi da. Mendi igela dugu baso-igel gorria, ia Euskal Herri osoan aurki dezakeguna Bizkaiko kostaldean eta Euskal Herriko hegoaldean izan ezik. Haritz eta pagoz osatutako basoak ditu gus-tuko, hezetasun handikoak, eta bere kolore gorriak eroritako hostoen artean mimetizatze-ko balio dio", hala dio wikipedia orojakileak.

Animalia gisa zaharrak dira oso, duela 90 milioi urte inguru Afrikan sortu eta hortik mundu guztira hedatu dira, Australira izan ezik.

Muxarraren antzera, gurean famatuak izan dira beti jaki preziatua izan direlako, baina kasu! Lehenik eta behin esan beharra dago isunak ez direla batere makalak, eh?

Zonaldeko mendizainak esan digu 50 euro inguruko isuna ezartzen ahal dizutela ale bakoitzarengatik.

2008. urteko albiste batean, Quinto Realen tipo bat 167 igelekin harrapatu zuten. Kasu horretan isuna jakin ez bazen ere, legeak argi uzten du halako espezieak harrapatzea 6.000 euro arteko isuna duela, horretaz gain, 21 euroko isuna, naturara ez itzulitako ale bakoitzarengatik.

Baztan aldean duela gutxi harrapatu zituzten

bi tipo 265 igelekin eta epaileak 1.920 eta 1.200 euro ordainarazi zien. Nafarroako Aldizkari Ofizialean irakurri daiteke igel gorria Batasunaren intereseko espeziea dela, "espezie mehatxatua izateko hurbil".

Gurean ugaria da oso, eta mendizainak hala aipatu zigun, hemendik gutxira hasiko da haiendako garai "beroa", neguan baitute hain ugalketa garaia, eta bai, jaun andreok, a ze garaia... Alde batetik guztiok ezagutzen ditugun "abestiak" ditugu, hor daude harrak, eztarria puztuta, emeak erakartzeko zain.

Eztarria puzteaz gain, harrei maskur beltzak ateratzen zaizkie behatzetan emeen sorbalde-tara itsasteko. Emeek, normalean besteak baino handiagoak direla, sorbaldan pikor antzeko batzuk ateratzen zaizkie harrak hobeto geratzeko. Sortzen den eroaldia benetan hain da izugarria ezen hurrengo 2 asteetan zonaldeko igel guztiak ugaltu baitira. Adituek diote arrak emea "zuketzen" duela, hitzez hitz.

Negu gorriek tradizionalki etxean gauza asko egiteko aukera ematen ez zutenek, oso goiz iluntzen denez... ba badakizue, beti dago aukera egoera erromantikoren bat sortzeko, hori bai, ez inor zukutu mesedez, eta hala egiten baduzue, bion mesedean izan dadila!

ZORIONAK ZUEI!



Itziar




Beñat




Boni



Gerardo



Ilargi



Beñat



TXUMARI ETA PATXI



Ernesto eta Josu



IÑIGO



IRUNE



ILARGI



Josu



Peio



JOSU

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*



Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedesna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta María 14 31012
IRUÑA
info@senatel.es





Zozketa mundiala

2015

Sarien zerrenda
Lista de premios

10

ZERRI / CERDOS

(1 EZKURREAN HAZIA / 1 CRIADO EN EL PASTO)

5

AXURI / CORDEROS

**Eta sari
Gehiago!**

**Hauteskundeak direla eta,
zozketa eguna aldatu beharra izan dugu.
Horrela bada, 20an beharrean 27an egingen dugu,
arratsaldeko 4,30etan**

**Entzun zuzenean
Esan Erran irratian
107.9 FM**

Eta guzien gaineratik,
SARI BEREZIA!
Y además, un
PREMIO SORPRESA!